



Kilker bat autopistan

Bernardo Atxaga

Hitzaurreak: Maite Artola, Joseba Sarrionandia

ISBN: 978-84-9172-205-2

Pamiela Kondagintza, 44

2020. urtea

15 x 21,5 cm / 352 or.

20,00€

Maite Artolak zuzendutako *Faktoria* irratsaiorako prestatutako gogoetak jaso dira liburu honetan, 2016ko udazkenean hasi eta 2020ko udara arte mikrofonoaren aurrean adierazitakoak. Irratirako pentsatuak izan zirenez, ahozkoaren kutsua dute, baina pausoz pauso garatutako saiakera baten gisa aurkezten dira hemen, egileak berridatzita eta osatuta.

[Pamiela]

«Kilker bat bezala paratu beharra dago autopistako zangan, inork entzuten edo ulertzen ez duen mezu batekin apika, jendearen bizitza ziztu bizian doan artean. Kilkerra. Baina kilker honek gaineko hego gogortuak igurtziz egiten duen hots zolia ez da beti-batekoa. Kilkerra ikuslea eta lekukoa da, memoriaduna eta pentsamenduduna. Ez da kilker bat: gogo kritikoa da».

[Joseba Sarrionandia]

«Zaratak estaltzen duen hotsaren bila jo genuen Atxagarengana [...] Behar zuen A-8ak kilkerraren hotsa».

[Maite Artola]



BERNARDO ATXAGA

Asteasun jaioa 1951n, bere benetako izena Jose Irazu Garmendia da. Aipagarri dira, idatzi dituen liburuen artean, *Bi anai* (1985), *Obabakoak* (1988, Euskadi Saria eta Espainiako Premio Nacional de Narrativa, IMPAC European Literary Award sarian finalista), *Behi euskaldun baten memoriak* (1991, Julia Eccleshare-k zuzendutako *1001 Children's Books You Must Read Before You Grow Up*

katalogoan zerrendatua), *Gizona bere bakardadean* (1993), *Zeru horiek* (1995), *Soinujolearen semea* (2003, Grinzane Cavour Saria, Mondello Saria eta *Times Literary Supplement Translation Prize*), *Zazpi etxe Frantzian* (2009, Estatu Batuetan 2012an argitaratutako hogeiki fikzio-liburu onenetako bat, *Publishers Weekly*-ko zerrendaren arabera), *Nevadako egunak* (2013, Euskadi Saria, Estatu Batuetako *PEN America 2019* sarietan finalista), *Txoriak kolpeka* (2014) eta *Etxeak eta hilobiak* (2019). Filmak eta antzerki lanak egin dira bere liburuetan gai hartuta. Hogeita hamahiru hizkuntzatarara itzulita dago. Euskaltzaina da 2006. urteaz geroztik. www.atxaga.eus



www.pamiela.com • 948 326 535 • soltxate@pamiela.com